

## **I. KAPITULUA. DEFINIZIO POLITIKOA**

### **1. artikulua**

ARALAR euskal mugimendu politiko eta sozial bat da eta bere helburuak hauek dira:

1. Espainia eta Frantziako Gobernuek ukatutako independentzia nazionala eskuratzea, Euskal Herriaren identitate ezaugarriak (kultura, hizkuntza, ...) gorde eta zaintzea eta bere zazpi Lurralde Historikoen bategitea lortzea.
2. Euskal Herriko oraingo sistema sozio-politiko aldatzeko, zuzentasun, berdintasun, elkartasun, demokrazia eta askatasunean oinarritutako sistema politiko berri bat sortzeko. Sistema politiko berri horrek Euskal Herriaren eta bere izaeraren biziraupena eta garapena bermatuko du, subiranotasuna duen nazio baten barruan eta europar proiektu komun batean txertaturik.

### **2. artikulua**

Erakundearen izena "ARALAR" da. Hitz hori gure arbasoentzat mitikoa zen leku batetik hartuta dago. Leku hori Hego Euskal Herriaren bihotzean kokaturik dago eta euskal herritarrontzako etorkizun aske eta beregain bat irudikatzen du. *"Izan ginelako gara, garelako izango gara"*.

### **3. artikulua**

ARALARren helbide soziala Iruñeko Aduana Txokoa 16-18 behean dago. Hegoaldeko Batzarrak egoki iritziz gero, hala ere, beste norabait alda dezake, nazioaren lurraldearen barruan.

### **4. artikulua**

Elkartearen ikurrak, anagramak eta beste zeinu identifikatzaileak estilo liburuan bilduta daude. Irudien erabilera guztiak estilo liburu horren arabera egiten dira.

### **5. artikulua**

1. ARALARren jardun-esparrua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurralde historikoek beren osotasunean osatzen dute, Trebiñu eta Villaverdeko Arana barne. Ipar Euskal Herriari dagokionez, une honetan, ARALARrek uste du dagoeneko alderdi politiko bat badela, AB, gurearen antzeko pentsamolde eta proiektuak dituen. Hori dela eta, momentuz lurralde nazional horretan aritzeari uko egiten dio, alderdi politiko horren hobe beharrez, berarekin harreman estu-estua eta lehentasunezkoa izan nahi baitu, etorkizun bateratua ere baztertu gabe.
2. Bestalde, Euskal diaspora handia izanik, ARALARrek bere jarduna zabaltzeko nahi du munduan zehar sakabanatuta dauden euskal kolektibo guztietara.

## **II. KAPITULUA. IRIZPIDE OROKORRAK**

### **6. artikulua**

ARALAR euskal alderdi politikoaren oinarritzko ezaugarriak hauek dira: euskalduna, demokratikoa – barrura eta kanpora begira -, independentista, sozialista eta internazionalista. Beraz, bere egiteko politikoaren helburu nagusia horren arabera Euskal Herri bat lortzea da eta ezker abertzalearen aldarrikapen historikoa bere egiten du, alegia, gure herriaren nazio askapena eta askapen soziala lortzea, abiapuntua lan zibila eta giza eskubide guztien defentsa guztiontzat izango delarik.

## 7. artikulua

ARALAR alderdi politikoa denez, borroka politikoari ematen dio lehentasuna. Borroka politikoa bere adierazpen guztietan ulertzen du, bai instituzio mailan, bai herri mailan, bai maila sozialean, bai eta mugimendu alternatiboetan eta desobedientzia zibilaren inguruko mugimenduetan ere. ARALARren funtzionamenduaren oinarria demokrazia parte-hartzailea izango da eta demokrazia hori gizarte osoan indarrean jartzeko lan egingo du ARALARrek. Barne nahiz kanpo mailako demokrazia parte-hartzaile horrek honako zutabe hauek izango ditu: pentsamendu, iritzi eta asoziazio askatasuna defendatzea, gehienek askatasun osoz adierazitako borondatea onartzea, gutxiengoaren eskubideak errespetatzea eta gehiengoek ezarritako boterea kontrolatzeko tresnak jartzea. ARALARrek defendatzen duen demokrazia parte-hartzailea lortzeko demokraziaren ohiko kontzeptua gainditu behar da. Izan ere, demokrazia parte-hartzailearen funtsa da gizartearen ditugun elkarrekin, erakundeek, taldeek eta pertsonen onartu behar dutela instituzioekin batera izan behar duten kudeatzaile-papera, interes orokorreko zerbitzuak, prestazioak eta gaiak gobernatzeko.

## 8. artikulua

ARALAR talde independentista denez, Euskal Herriaren subiranotasuna lortu nahi du, baita euskal nazioaren onarpen osoa ere, nazioak aske diren nazioarteko testuinguru batean. ARALARrek uste du Euskal Herriaren independentzia lortzea, gaur egungo mundu globalizatu honek dituen mugak gorabehera, asmo zilegia ez ezik, beharrezkoa ere badela, euskal nazioaren nortasuna garatzeko eta Euskal Herriak herri beregain gisa bizirik irauteko.

## 9. artikulua

ARALAR ezker abertzaleko alderdi politikoa izanik, helburu politikoetako bat eta bere sorreraren arrazoietakoa bat du eztabaida politikoa sustatzea ezker abertzalearen barruan, gune politiko hori berregituratu eta proiektu politiko eta antolakuntzako komun eta plural baten inguruan berriro batze aldera. Proiektu horrek bere inguruan bildu behar du gure herriko ezkerrearen indar eraldatzaile izugarria.

### **III. KAPITULUA. FUNTZIONAMENDURAKO IRIZPIDEAK**

#### **10. artikulua. Funtzionamendu demokratikoari buruzko irizpidea.**

1. ARALARrek gizartearen egituratzeko aldarrikatzen duen demokrazia indarrean egon behar da bere barne-jardunean ere. Horretarako, behar diren tresnak jarriko dira Hego Euskal Herriko Batzarrak erakundearen funtzionamenduan lehentasuna izan dezan, erabakiak ahalik eta jende gehienaren artean hartuak izan daitezten eta gehiengoaren nahiak eta erabakiak, zein gutxiengoaren eskubideak errespetatuak izan daitezten.
2. Barruko ordezkariak eta hauteskundeetarako hautagaiak boto sekretu bidez aukeratuak dira. Bide hori ARALARko edozein organotan gertatzen den eztabaidaren bat ebazteko ere erabiliko da, eztabaidan ari direnetako batek hala eskatzen badu.

#### **11. artikulua**

1. ARALARko hizkuntza euskara da, eta euskararen normalizazioa ARALAR barruan zein kanpoan jardura eman dadin, hartu beharreko neurriak hartuko ditu, beti ere kide guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezten neurriak bermatuz. ARALARrek Euskal Herriko hizkuntzen erabilerari buruzko neurriak emango ditu, informazioa jaso eta barne-eztabaidan parte hartzeko eskubidea berdintasunean garatu dadin.

2. ARALARek onartuta duen Hizkuntza Normalkuntzarako Plana abian jarriko du, horretarako beharko diren bitarteko eta neurriak aktibatuz. Plangintzan zehaztuak dauden erakundeko arduradunen, kargudun publikoen, langileen hizkuntza eskakizunak, eta ARALARen jardueran zehaztuak dauden hizkuntza irizpideak ere, aplikatu egingo ditu. Aralarren Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza estatutu hauetako lehen eranskinean bilduta dago.

## **12. artikulua. Lurralde-autonomiari buruzko irizpidea.**

ARALARrek lurralde-autonomia du oinarrizko irizpideetako bat. Horrek esan nahi du herrialde bakoitzak autonomia handiz jokatu duela antolaketa arloan, bai maila politikoan bai ekonomikoan eta bai antolakuntzazkoan ere. Herrialde bakoitzeko taldearen eta erakundearen arteko eskumen banaketa zehaztuta geratuko da bigarren xedapen iragankorran bildutakoaren arabera.

## **13. artikulua. Gizarteari irekita egoteari buruzko irizpidea.**

ARALARrek adierazten du gizartearekin etengabeko harremanetan egoteko bokazioa duela, batez ere sektore aktiboen eta konprometituenekin. ARALARrek apustu egiten du antolaketaredu desberdin baten alde, gizartearen oinarriari eta gizarte osoari irekita dagoena. Horretarako, behar diren tresnak jarriko dira ARALARko jardueretan parte har dezaten erakundean afiliatuta ez dauden pertsonak eta kolektiboak.

## **14. artikulua. Pluraltasunari buruzko irizpidea.**

Pluraltasuna balore ordezkazina da gizarte demokratiko batean, eta ezinbesteko betebeharra da ideien eztabaidan aurrera egiteko. ARALARrek, baturik egotearen garrantzia gutxietsi gabe, uste du pluraltasuna zaindu ez ezik bultzatu ere egin behar dela erakundearen barruan. Horregatik, ARALARrek Estatutu hauen bidez ezartzen ditu afiliatuek beren ideiak, proposamenak eta alternatibak berdintasunez aldarrikatzeko eta berdintasunez defendatzeko behar dituzten tresnak. Araudi honetan zehazten da, orobat, iritzi-ildoen sorrera, funtzionamendua, ordezkaritza eta finantzaketa.

## **15. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko irizpidea**

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna indarrean dagoen Legedian onartua dagoen arren, eguneroko jardueretan ez da betetzen. Egoera desorekatu hau oinarrizko giza eskubideen urraketa nabarmenetakoa dela kontuan hartuta, ARALARek bere egiten ditu mugimendu feministek eta emakume taldeek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko borroka sozial eta politikoan egindako ekarpenak. ARALARrek emakume eta gizonen aukeraberdtintasuna ziurtatzeko Ekintza Plana landu eta aktibatuko du, horretarako beharrezkoak diren bitarteko eta neurriak hartuz.

## **16. artikulua. Kargudun publikoak eta barne-arduradunak aldatzeari, garbi jokatzeari eta haien arduren iraupena mugatzeari buruzko irizpidea.**

ARALARren iritiz, kargudun publikoek eta erakundeko barne-arduradunek beren jarreraren bidez erakutsi behar dute politikan aritzeko molde berri bat, aritze hori norbere karrera edo egitasmoa bultzatzearekin baino zerbitzu bat ematearekin lotzen zuen kontzeptua berreskuratzeko. Uste du, orobat, kargu publikoen edo bestelako arduren iraupena mugatu behar dela erakundean.

#### **IV. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN HELBURUAK**

##### **17. artikulua.**

ARALARren helburu nagusia gizarte demokratiko bat lortzea da. Horretarako, ARALARren ustez, Europako demokrazia formalen begi-bistako gabeziak eta mugak gainditu behar dira eta giza eskubide guztien defentsan eta hauen errespetuzko jarrera aktiboan oinarrituko den benetako demokrazia baterantz jo. Demokrazia horretan eskubideak eta askatasunak Konstituzioaren aldarrikapen hutsak izateari utzi eta zerbait egiaztagarri izan behar dira. Ildo horretatik, ARALARrek giza eskubideak salbuespenik gabe defendatzearen alde egiten du.

##### **18. artikulua. Euskal Nazioa nazioartean onartzea**

ARALARrek euskal nazioaren onarpena lortu nahi du nazioartean. ARALARrek uste du independentzia, asmo zilegia izateaz gain, beharrezkoa dela Euskal Herriaren eta euskal kulturaren biziraupena bermatzeko.

##### **19. artikulua. Sozialismoa. Utopiara hurbilduz.**

ARALARrek, kapitalismoa ordeztzeko alternatiba bat sortzen lagundu nahi du, sozialismoaren aldeko apustu ederra plazaratzea ekarri zuten balore zaharretik abiatuta. Harrotasunez, ARALARrek bere burua sozialistatzen du. Ondorioz, elkartasunean eta konpromiso sozialean oinarrituta, zuzentasun maila handiagoaren bila eta ondasunen banaketa bidezkoagoaren alde borrokatzea eginkizuntzat hartzen du. Labur esanda, gizakiaren duintasunaren alde borroka egitea bere egiten du.

ARALARrek garapen orekatua lortu nahi du, ingurugiroa eta natura errespetatuz, garapen liberal neurrigabearen eraso hainbat aldiz jasan baitu "Ama Lurrak". Mugimendu ekologistaren sektorerik aktiboaren aldeko konpromisoa ere ARALARren idearioan jasota dago.

ARALARrek emakume eta gizonen arteko eskubideen berdintasuna du oinarri, eta gizarteko arlo guztietan eskubide berdintasun hori gauzatu dadin egingo du lan.

ARALAR alderdi internazionalista da, eta herrien askapenaren alde egingo du lan.

##### **20. artikulua. Euskara behar dugu, Euskarak behar gaitu.**

ARALARren helburuetako bat da euskararen biziraupena ziurtatzea –gaur egun mehatxaturik baitago– eta haren erabilera eta garapena sustatzea. Izan ere, ARALARrek Euskal Herriaren ezinbesteko zutabetzat du euskara.

##### **21. artikulua**

1. ARALARrek botere politikoa eskuratzeko asmoa du, gure herriko instituzioak gobernatzeko. Handik lan egin nahi du lehenago aipatutako helburuak lortzeko. ARALARrek soilik bide politikoak erabiliko ditu, hala nola borroka ideologikoa, masa- borroka eta hauteskundeak. ARALAR guztiz sinistuta dago herri-babesa eskuratuz baino – horixe da ARALARren helburuetako bat– ezin dela boterera iritsi. Herriak boterera iristeko babesik ematen ez badio, ARALARrek oposizio leial, sendo eta tinkoa egingo du, horrela bere helburuekin eta herriaren aginduekin bat etorritik.
2. ARALARrek indarkeria arbuiatzen du, esan nahi baita euskal politikan parte hartzeko indarkeria-adierazpide guztiak.

3. Bidean begikotasunez ikusten ditu desobedientzia zibila borrokabide gisa proposatzen duten sektoreak eta bere babesa eskaintzen die, apustu horrek dituen zailtasunen jakitun egonda ere. Gainera, ARALARrek demokrazia parte-hartzailearen aldeko apustu garbia egiten du. Era berean, gizarte-sektoreen, sindikatuen, auzokide-elkarteen eta besteren lana bultzatu eta garatu nahi duela adierazten du. ARALARrek sustatuko ditu enpresetan, auzoetan eta abarreetan eratzten diren erakundeak, haienganako inolako menpekotasun-harremanik izan gabe eta haiengan inolako kontrolik eragiteko asmorik gabe. ARALARren iritziz, autogestioa da erakunde guztietarako bultzatu beharreko eredu eta baita kogestioa ahal den heinean.
4. Euskal Herriak pairatzen duen gatazkaren aurrean, eta gatazka horrek sortarazitako indarkeria alboratu ahal izateko, ARALARrek bakea lortu nahi du. Baketze horrekin batera, presoen amnistia lortu behar da eta gatazkaren bi aldeetako biktima guztiei kalte-ordaina eman behar zaie.
5. Normalizazio politikoa helburu lan egingo du ARALARrek, sakontze demokratikoaren, elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez.

## **V. KAPITULUA. AFILIATZEA, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **22. artikulua**

Afiliatzea ekintza bat da non pertsona batek onartzen baitu ARALARko kidea izatea. Horrekin batera onartzen ditu ARALARren oinarri ideologikoak, Estatutu hauek eta afiliatuen eskubideak eta betebeharrak. Haren izena horretarako irekitako zentsuan sartuko da eta Alderdiak onartu ondoren akreditazioa emango zaio.

Afiliatuek aralarkide izena hartzen dute. Aralakideek osatzen dute ARALAR.

### **23. artikulua.**

ARALARren afiliatzeko honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Gutxienez 16 urte izatea.
2. Beste alderdi politiko batean afiliaturik ez egotea.
3. ARALARrek Estatutu hauetan biltzen dituen irizpide ideologikoen kontrako baloreak defendatzen dituen beste erakunde, sindikatu, elkarte, sekta edo izaera politiko edo soziala duen edozein elkartetako kidea ez izatea. Funtzionamendurako irizpideak eta erakundearen helburuak onartzea eta proiektu politiko honen aldeko konpromisoa hartzea.
4. Afiliatzeko idatziz eskatzea, dagokion herriko edo Herrialdeko taldearen agiria betez edo web orrian dagoen inprimakia betez.

### **24. artikulua**

ARALARko afiliatuek afiliazio-txartel bana izango dute.

### **25. artikulua**

ARALARrek aralarkide guztien liburu-errola bat izango du. Bertan adieraziko da zer baja eta zer alta gertatu den eta militanteen zentsua beti eguneraturik izango du. Egoki irizitako datuak agertuko dira pertsona horiei buruz (adina, lanbidea, helbidea, kotizazio-egoera...). Herrialdeko errolda bat izango da, Hego Euskal Herriko zentsu bakarrean bateratuko direnak.

Herriek eta herrialdeek euren eremuko afiliatuen errolda edukiko dute.

Nolanahi ere, ARALARrek bere afiliatuen datuak kontu handiz zainduko ditu eta datu pertsonalen pribatizatzeari buruz indarrean dagoen legeriak dioena beteko du.

## **26. artikulua**

Afiliatze eskaera guztiek tokian tokiko eta herrialdeko komiteen onespena jaso beharko dute.

## **27. artikulua**

ARALARko afiliatuek honako arrazoi hauengatik eman ahal izango dute edo eman ahal izango zaie baja:

1. Afiliatuak berak hala nahi izan duelako.
2. Afiliatua hil delako.
3. Afiliatze-kuota behin eta berriro eta arrazoirik gabe ordaindu ez duelako. Behin eta berriro ez ordaintzea zera da: lau hilabetez jarraian ez ordaintzea edo bi urtetan sei hilabetez aldizka ez ordaintzea.
4. Zigor-prozeduraren eskumena duen ARALARko organoak hala erabaki duelako.

## **28. artikulua**

ARALARko afiliatuek honako eskubide hauek dituzte:

1. ARALARren barne-jardunean parte hartzea, norbere iritzia ematea eta dagokion eremuan erabakiak hartzen esku hartzea.
2. Hautatzea eta hautagaia izatea edozein hautagai-zerrendatarako edo erakundeko edozein barne-organotarako.
3. Sektoreko lan-arloetan edo/eta parte hartzeko guneetan aritzea eta erakundearen argitalpenetan beren iritzia ematea.
4. Erakundearen argitalpenak eta erakundearen jardunari buruzko behar besteko informazioa jasotzea.
5. Argibideak eskatzea afiliazio-zentsuaz, kontuen egoeraz eta pertsonen edo kargudunen emandako ordainsariez, zenbait gaik behar besteko konfidentzialtasuna izango dutela ziurtatzeko neurriak hartzea baztertu gabe.
6. Organo eskudunei nahi beste proposamen bidaltzea, arrazoizko epe batean erantzuna jasotzeko eskubideaz.
7. Zuzenean erabakia hartzea erreferendum bidez. Erreferenduma herri, herrialde edo Hego Euskal Herri mailakoa izango da. Erreferenduma antolatzeke, gutxienez dagokion eremuko militanteen %10aren zuzeneko atxikipena beharko da.
8. Militantea izateko behar bezalako prestakuntza politikoa jasotzea.
9. Bermeen Batzordera jotzea babesa eskatzeko edo beste afiliaturen bati espedientea irekitzeko eskatzeko.
10. Legeak edo Araudi honek aitortzen dituzten eskubideak erabiltzea.
11. Informazioa eskatu ahal izatea Aralarren barneko erabaki, gestio, kontsulta, berme edo eta jardun politiko eta instituzionaleko organoek izandako (edo izan beharreko) bilerekin, eta beste indar politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduekin izandako harremanez, hauen ondorioz sortzen diren akta edo laburpenen bidez.

Informazio eskaera hauei bide ematea agiri hori sortzen duen organoak arautuko du, egokiera, isilpekotasuna, erreserba edota zuhurtasuna kontuan hartuko dituelarik, edonola ere, bilera-agiria eragiten duen harremana gertatu eta hiru hilabetera.

Informazioa alderdiaren egoitzetan eskuratuko da, eta ezingo da fotokopiatu edo kanpora atera, eta Kotsulten Erregistro bat sortuko da, non kontsulta egiten duen afiliatuaren izen osoa, kontsulta-eguna eta kontsultatutako agiriak azalduko diren. Herrialdeko arduradunak edo honek delegaturiko pertsonak izango du agiri hauek gordetzeko erantzukizuna.

## **29. artikulua**

ARALARko afiliatuak honako betebeharrak dituzte:

1. Alderdiaren oinarri ideologikoarekin eta irizpide orokorrekin bat etortzea eta bere estatutuak onartzea. ARALARren ideologia, irizpideak eta helburuak defendatzeko konpromisoa hartu behar du eta horiek lortzen lagundu. Alde horretatik, bere bizitzan eta lan eta gizarte harremanetan ARALARren gizarte eta nazio eraldaketarako helburuak lortzeko eragile aktiboa izango da.
2. Organo eskudunek ezarritako kuota ordaintzea, baldin eta egoki justifikatuta kontrako arrazoirik ez balego.
3. Herri edo eskualdeko taldean edo nahi duen besteren batean izena ematea
4. Organo eskudunek demokratikoki hartutako erabakiak errespetatzea eta betetzea, gehingoak babesten ez dituen iritzia plazaratzeko askatasuna baztertu gabe. Kargudun publikoei eta erakunde arduradunei dagokienez, berriz, organo eskudunek hartutako erabakiak lotesleak izan daitezke.
5. Erakundearekin plazan nahiz eremu pribatuan leiala izatea, ARALARren irudi, izen on eta sinesgarritasunari kalterik egin gabe.
6. Dagokien organoek eskaturik, gairen bat isiltasunez eta zuhurtasunez eramatea. Afiliatuak uste badu eskaera hori dena delako organoaren eskumenetatik harago doala, Bermeen Batzordera jo ahal izango du eskaera baliogabetu dadila eskatzeko.
7. ARALARren ordezkaritza, funtzioak eta ardurak onartzea, erakundeak hala erabakitzen badu, baldin eta egoki justifikatuta kontrako arrazoirik ez balego.

## **30. artikulua**

Afiliazioa ez ezik ARALARrek beste harreman-mota batzuk ere onartzen ditu. Ildo horretatik, "aralarzalea" izeneko figura ere onartzen du.

## **31. artikulua**

1. Aralarzalea izan nahi duenak onartua izan behar du. Horretarako, lehenago, agiri bat bete beharko du. Aralarkideen kasuan erabilitako prozedura bera erabiliko da horretarako. Aralarzalea izateak honako eskubide hauek ematen ditu: Erakundearen jardueri buruzko informazioa eta erakundeak sortutako agiriak jasotzea, baita erakundeak zabalduko argitalpenak ere.

2. Aralarzale izateak bere baitan darama ARALARek eska diezaioken laguntza politikoa eta antolakuntzakoa emateko prest egotea. Aralarzaleen errolda egingo da.

### **32. artikulua**

ARALARrek aralarzaleen zentsu bat prestatuko du, afiliatuen zentsuaren antzera gobernatuko dena. Zentsu hori afiliatuek bakarrik erabili ahal izango dute, datuak zaintzeko neurriak hartzeko aukera baztertu gabe.

## **VI. KAPITULUA. ERAKUNDEAREN EGITURA**

### **33. artikulua**

ARALAR-ek honako irizpide hauen arabera jokatzeko du:

1. Militanteen benetako parte-hartzea eztabaida eta erabakiak hartzeko prozesuetan.
2. Organo bakoitzak bere eremuan autonomia izatea eskumenen arloan.
3. Erabateko koordinazio bertikal eta horizontala.

### **34. artikulua**

ARALARren egitura lurralde-eremuen –dimensio horizontala- eta funtzioen –dimensio bertikala- arabera eratuta dago. Lurralde-eremuan herri, herrialde eta Hego Euskal Herriko organoak daude. Funtzioen arloan, berriz, erabakitze organoak, organo kudeatzaileak, kontsulta-organok, berme-organok eta ekintza politiko eta instituzionalerako organoak.

### **35. artikulua**

Hona hemen ARALARko organoen izenak edota plano ezberdinak:

1. Biltzar Nagusia
2. Hego Euskal Herriko Batzarra
3. Herrialdeko Batzarra
4. Herriko edo eskualdeko Batzarra
5. Komite politikoa
6. Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordea, Hegoalde mailako goreneko organo erabakitzaile iraunkorra
7. Koordinatzaile nagusia
8. Koordinatzaile ordea
9. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordea
10. Herrialdeko arduradun edo koordinatzailea
11. Herriko edo eskualdeko Batzordea
12. Herriko edo Eskualdeko arduraduna
13. Parte hartzeko guneak
14. Sektoreetako taldeak
15. Barneko hautes zentsuak
16. Bermeen Batzordea
17. Kontrol Ekonomikorako Batzordea
18. Legebiltzar-taldeak
19. Udal-taldeak
20. Iritzi-ildoak
21. Iratzarri

### 36. artikulua

1. Biltzar Nagusia –iraunkorra ez den- ARALARren eztabaidarako eta erabakitzeke goreneko organo erabakitzaila da.
2. Afiliatu guztiek osatzen dute.
3. Gutxienez hiru urterik behin biltzen da.
4. Honako funtzio hauek ditu:
  - a) Alderdiaren jarraibide ideologikoak eta jokabidea ezartzea.
  - b) Koordinatzaile nagusia, Zuzendaritza Batzordeko kideak, Bermeen Batzordeko kide bat eta Kontrol Ekonomikorako Batzordeko beste kide bat hautatzea.
  - c) Estatutu hauetan eta oinarri ideologikoetan egiten diren aldaketak onartzea, hala badagokio.
  - d) Koordinatzaile nagusiak aurkeztutako txostena onestea.

### 37. artikulua

1. Hego Euskal Herriko Batzarra ARALARren eztabaidarako eta erabakitzeke goreneko organo erabakitzaila da, Biltzar Nagusien tarteko epean.
2. ARALAR-ko afiliatu guztiek osatzen dute.
3. Normalean sei hilabeterik behin biltzen da, Biltzar Nagusiekin batera gertatzen ez bada behintzat. Salbuespenez, Zuzendaritza Batzordeak edo afiliatuen %20ak eskatuta antola daiteke.
4. Funtzio hauek ditu:
  - a) ARALARren jardun politiko orokorra zehaztea.
  - b) Nazio edo Europa mailako beste alderdi politiko eta gizarte-mugimendu batzuekin izan beharreko akordioak edo harremanak erabakitzea.
  - c) Dagokionean, Zuzendaritza Batzordeak aurkeztutako agiri politikoak onartzea.
  - d) Dagokionean, erakundeak prestatutako araudiak, aurrekontua eta urteko kontuen balantzea onetsi eta aldatzea.
  - e) Legebiltzar-taldeek jokabide politikoa zaintzea.
  - f) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak
5. Hego Euskal Herriko Batzarrera biltzeko deialdia banan-banan jakinaraziko zaie afiliatu guztiei. Deialdi horretan adieraziko da noiz, non eta zein ordutan egingo den Batzarra, baita zer gai-zerrenda landuko den ere. Gainera, behar den dokumentazioa erantsiko zaio deialdiari.

### 38. artikulua

1. Hego Euskal Herriko Komite Politikoa ARALARren eztabaidarako eta hausnarketarako organoa da.
2. Hegoaldeko eta herrialdeetako lau zuzendaritzetako kideek osatzen dute.
3. Normalean urtean hirutan biltzen da, Hego Euskal Herriko Batzarrarekin batera gertatzen ez bada behintzat. Salbuespenez, herrialdeko zuzendaritzetako batek edo Hego Euskal Herriko zuzendaritzak eskatzen duenean bilduko da.

4. Funtzio hauek ditu:
  - a) ARALARren jardun politiko orokorra zehaztea.
  - b) Nazio edo Europa mailako beste alderdi politiko eta gizarte-mugimendu batzuekin izan beharreko akordioak edo harremanak eztabaidatzea.
  - c) Dagokionean, Zuzendaritza Batzordeak aurkeztutako agiri politikoak proposatzea.
  - d) Instituzioetako taldeen jokabide politikoa zaintzea.
  - e) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.

### 39. artikulua

1. Herrialdeko Batzarra ARALARren eztabaidatu eta erabakiak hartzeko goreneko organoa da, lurralde-eremu horri soilik dagozkion gaietan.
2. Lurralde historiko jakin batean afiliatutako pertsona guztiek osatzen dute.
3. Normalean urtean bi aldiz biltzen da eta ohiz bestera bildu daiteke Zuzendaritza Batzordeak edo lurralde historiko horretako afiliatuen %20ak hala eskatzen badu.
4. Honako funtzio hauek ditu:
  - a) ARALARrek herrialdean izan behar duen jardun politiko finkatzea.
  - b) Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeko kideak eta koordinatzailea hautatzea.
  - c) Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak prestatutako urteko txostena onestea –edo ez-.
  - d) Herrialdeko politika koordinatzea.
  - e) Herrialdeko legebiltzar-taldearen, aldundiaren, batzar nagusietako taldearen eta udal-taldeen kontrol politikoaz arduratzea, toki-batzarren eskumenei kalterik eragin gabe.
  - f) Herrialdeko aurrekontuak eta kontuak onestea.
  - g) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.
  - h) Batzarra biltzeko deialdia banan-banan jakinaraziko zaie afiliatu guztiei. Deialdi horretan adieraziko da noiz, non eta zer ordutan egingo den Batzarra, baita zer gai-zerrenda landuko den ere. Gainera, behar den dokumentazioa erantsiko zaio deialdiari.

### 40. artikulua

1. Herriko edo eskualdeko Batzarra ARALARren goreneko organo erabakitzailea da, lurralde-eremu horri soilik dagozkion gaietan.
2. Udalerrri edo eskualde horretan afiliatutako guztiek osatzen dute, baita zentsuan dauden aralarzale guztiek ere. Herriko Batzordeak egoki iritiz gero, herritar guztiei irekitako batzarrak antola ditzake.
3. Herriko edo eskualdeko Batzordeak eskaturik biltzen da gutxienez urtean bi aldiz, eta ohiz bestera bildu daiteke udalerrri edo eskualde horretako afiliatuen %20ak hala eskatzen badu.

4. Funtzio hauek ditu:
  - a) Herri edo eskualde mailako jardun politikoa zehaztea.
  - b) Herriko edo eskualdeko Batzordeko kideak hautatzea. Kide horiek afiliatuta egon behar dute beti.
  - c) Herriko edo eskualdeko Batzordeak prestatutako urteko txostena onestea, hala dagokionean.
  - d) Udal-taldearen kontrol politikoaz arduratzea.
  - e) Aurrekontua eta kontuen balantzea onestea, hala dagokionean.
  - f) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.
5. Herriko edo eskualdeko Batzarra biltzeko deialdia banan-banan jakinaraziko zaie aralarzale edo afiliatu guztiei. Deialdi horretan adieraziko da noiz, non eta zer ordutan egingo den Herriko Batzarra, baita zer gai-zerrenda landuko den ere. Gainera, behar den dokumentazioa erantsiko zaio deialdiari.

#### 41. artikulua

1. Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordea ARALARren goreneko organo kudeatzailea eta erabakitzailea da, Hegoaldeko bi batzarren tartean.
2. Honako kide hauek ditu: Biltzarrak hautatutako hamar, herrialdeetako lau arduradun edo koordinatzaileak, legebiltzar-taldeetako eta aldundietako zein batzar nagusietako bozeramaileak, militanteen %5 etik gorako kide-kopurua duten onartutako iritzi-ildoen ordezkari bana eta Iratzarri taldearen ordezkari bat. Zuzendaritzako kideek euren herrialdeko zuzendaritzetan parte hartzeko aukera dute.
3. Normalean astean behin biltzen da, astelehenetan, eta egoki irizten den guztietan, koordinatzaile nagusiak eskaturik.
4. Besteak beste, honako funtzio hauek ditu:
  - a) ARALARren ordezkaria izatea Euskal Herriko, Europako eta nazioarteko politikan, eta bere lege-ordezkaritza izatea.
  - b) Hego Euskal Herriko Batzarrak hartutako erabakiak betearaztea.
  - c) Erakundearen barneko eta kanpoko jarduna gobernatzea.
  - d) Lan eta eztabaida politikorako proposamenak egitea, Hego Euskal Herriko Batzarrak edo Biltzar Nagusiak onets ditzan.
  - e) Legebiltzar-taldeen, Batzar Nagusietako eta Aldundietako, instituzio-lana koordinatzea.
  - f) Bere funtzionamendua arautzeko barne-araudi bat prestatzea, baita Hego Euskal Herriko Batzarraren funtzionamendurako araudi bat ere, Hego Euskal Herriko Batzarrak berak onets dezan.
  - g) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.

#### 42. artikulua

1. Koordinatzaile nagusia ARALARren pertsona bakarreko goreneko organoa da eta Biltzar Nagusiak hautatzen du.
2. Hegoaldeko bozeramaletzari dagokionez, bere esku dago:
  - a. Bere gain hartu eta gauzatzea.
  - b. Hegoaldeko Zuzendaritzako beste kide baten esku uztea, zuzendaritza horretako gehiengoaren onespenezkin.

3. Zuzendaritza Batzordeko kideen artean koordinatzaile-ordea proposatzen du.
4. Zuzendaritza Batzordeko jardun politikoa koordinatu eta txosten politiko bat prestatuko du, Biltzar Nagusi bakoitzean onetsi beharko dena.
5. Kalitatezko botoa du Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordean.
6. Koordinatzaile Nagusiak, Koordinatzaile Nagusi Ordeak, Idazkariak, Komunikazio-arduradunak, Antolaketa eta Formazioa arduradunak, Erakunde Harremanetarako arduradunak, Gizarte mugimenduekiko harremanetarako arduradunak eta Hizkuntza Normalizaziorako arduradunak euskaldunak izan behar dute.

#### 43. artikulua

- a) Koordinatzaileordea koordinatzaile nagusiaren proposamenez hautatuko du Hegoaldeko Zuzendaritzak. Bertako kide izan beharko du, derrigorrean.
- b) Koordinatzaile nagusiarekin batera alderdiaren bozeramailea izango da.
- c) Koordinatzaile nagusiaren albokoa izango da, eta honen funtzioak hartuko ditu bera ez dagoenean.
- d) Alderdiaren eguneroko zereginetaz arduratuko da: egunerokotasunari jarraipena egin, erabakiak betetzearaziko ditu, beste eragileekin harremanak edukiko ditu, eta oro har alderdiaren baitako dinamikari segimendua egingo dio. Alderdiari kohesioa emateko zeregina izango du.
- e) Pertsonal arduraduna izango da alderdian.

#### 44. artikulua

1. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordea ARALARren goreneko organo kudeatzaile eta erabakitzailea da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lurralde historikoetan, Herrialde bakoitzeko bi biltzarren tartean
2. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordea honako kide hauek osatzen dute:
  - a. Herrialdeko koordinatzailea eta Herrialdeko Batzarrak aukeratutako zazpi kide, gutxienez, 64. artikuluaaren arabera.
  - b. Zortzi ordezkari herrialdeko eskualdeetatik hautatuak.
  - c. Iratzarriko ordezkaria
  - d. Herrialdean militanteen %5a duten iritzi-ildoko ordezkari bana.
  - e. Honako kargu hauek dutenak: Batzar Nagusietako edo Nafar Parlamentuko bozeramailea, Hiriburuko udal taldeko bozeramailea, Diputatu Nagusia edo foru-diputatu bat.
3. Normalean astean behin biltzen dira eta egoki ikusten den guztietan, Herrialdeko arduradun edo koordinatzaileak eskaturik.
4. Honako funtzio hauek ditu:
  - a. ARALARren ordezkaria izatea herrialdeko politikan eta bere lege-ordezkaritza izatea.
  - b. Hegoalde eta Herrialdeko Batzarrak hartutako erabakiak betearaztea.
  - c. Erakundeak herrialdean duen barneko eta kanpoko jarduna gobernatzea.
  - d. Herrialdeari buruzko lan eta eztabaida politikorako proposamenak egitea, Herrialdeko Batzarrak onets ditzan.
  - e. Nafarroako Legebiltzarreko taldearen edo batzar nagusietako taldearen instituzio-lana kontrolatzea eta udal-taldeena koordinatzea.

- f. Bere funtzionamendua arautzeko barne-araudi bat prestatzea, baita Herrialdeko Batzarraren funtzionamendurako araudi bat prestatzea eta proposatzea ere, Herrialdeko Batzarrak berak onets dezan.
- g. Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.

#### 45. artikulua

- 1. Herrialdeko koordinatzailea ARALARren pertsona bakarreko goreneko organoa da herrialdean eta Herrialdeko Batzarrak hautatzen du.
- 2. Herrialdeko ordezkari nagusia da.
- 3. Herrialdeko bozeramale funtzioari dagokionez:
  - a) beronek bete dezake funtzio hori
  - b) edo Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeko kide bati utzi, Batzorde horretako gainontzeko kideen gehiengoaren onespenez.
- 4. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeko kideen artean Koordinatzaile-ordea proposatzen du, beharrezkoa denean (bera ez dagoenean edo beste arrazoiren bat medio) bere ordezkaria izango dena.
- 5. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen jardun politikoa koordinatzen du.

#### 46. artikulua

- 1. Herriko edo eskualdeko Batzordea ARALARren organo kudeatzailea da.
- 2. Batzorde bat osatzeko 5 afiliatu behar dira gutxienez. Kopuru horretara iritsi ezean, eskualdean eratuko da batzordea.
- 3. Gutxienez hilabetean behin biltzen dira eta egoki ikusten den guztietan, herriko arduradunak eskaturik.
- 4. Honako funtzio hauek dituzte:
  - a) ARALARren ordezkaria izatea herriko edo eskualdeko politikan.
  - b) Herriko edo eskualdeko Batzarrak, Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak eta Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakia betearaztea.
  - c) Erakundeak herrian edo eskualdean duen barneko zein kanpoko jarduna gobernatzea.
  - d) Herriari edo eskualdeari buruzko lan eta eztabaida politikorako proposamenak egitea, Herriko edo eskualdeko Batzarrak onets ditzan.
  - e) Udal-taldearen instituzio-lana kontrolatzea.
  - f) Herriko edo eskualdeko Batzarra biltzeko deialdia egitea.
  - g) Eskuordetzen edo esleitzen zaizkion gainerako funtzioak.

#### 47. artikulua

- 1. Herriko edo eskualdeko arduraduna ARALARrek herrian edo eskualdean duen bozeramailea eta ordezkaria da.
- 2. Herriko edo eskualdeko Batzarrak aukeratzen du. Era berean, Herriko edo eskualdeko Batzordeko kideen artean bat hautatzen du bera ez dagoenean bere ordezkari aritzeko. Pertsona horrek normalean idazkari-lanak egingo ditu.
- 3. Erakundeak herrian edo eskualdean duen jardun politikoa koordinatzen du.

#### **48. artikulua**

Sektoreko Taldea afiliatu-talde bat da, ARALARtik sektore sozial, ekonomiko edo bestelako sektoreren batean (sektore politikoan izan ezik) lan egitea erabaki duena. Talde horren helburua ARALARrek arloren batean (esaterako, emakumea, ekologismoa, hirugarren adina, inmigrazioa, sindikalismoa...) duen jarrera politikoa garatzeko hausnarketa eta eztabaida sustatzea eta jarrera horretan eragitea izango da.

Sektore taldeak Hegoaldeko Zuzendaritzak edo herrialde bateko zuzendaritzak sustatu ditzake, nahiz edozein afiliatuk.

Ondorio guztietarako, Sektoreko Talde bat halakotzat hartzeko, horretarako sortzen den erroldan izena eman beharko da. Horretarako, Zuzendaritza Batzordean agiri bat aurkeztu beharko da. Agiri horretan datu hauek adierazi beharko dira:

- a) Sektoreko Taldea sustatzen duen pertsona edo pertsona-taldea eta haren afiliazioa.
- b) Sektoreko Taldearen izena.
- c) Helbidea (posta helbidea edo elektronikoa).
- d) Taldearen helburuak.
- e) Funtzionamendurako oinarritzko arauak.
- f) Taldeko bozeramaile den pertsonaren edo pertsonen izena edo izenak.
- g) Sustatzaileak interesgarri derizkion beste datu batzuk.

Zuzendaritza Batzordeko Idazkaritza arduratuko da artikulua honetan aurreikusitakoaren arabera behar bezala egiaztatu diren Sektoreko Taldeen erroldaz

#### **49. artikulua**

ARALARrek erreferenduma eta afiliatuei eta aralarzaleei egindako galdeketa izango ditu erabakiak ahalik eta gehien artean hartzeko funtsezko tresnatzat. Horretarako, barneko hauteskunde-zentsuak prestatuko dira galdeketa demokratikoak izan daitezen.

#### **50. artikulua**

Ezinbestekoa da organoen arteko koordinazioa, ARALARrek barnetik ondo funtziona dezan eta militanteek izan ditzaten azkar hartutako erabaki dokumentatuak.

Koordinazioak ezin dezake ekarri organo batzuen menpekotasuna. Koordinazioa beharrezkoa da ARALARren barne-egitura eraginkorra eta azkarra izango bada. Organo, maila eta afiliatu guztiei ahalik eta informazio gehien eman behar zaie. Horrela lortu eta finkatu behar da lehen aipatu den autonomiaren eta batasunaren arteko oreka.

Koordinazioa hiru mailatan gertatzen da: horizontalean, Herriko Batzordeen artean, esaterako; bertikalean, Herriko Batzar baten eta Herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen artean, esaterako; eta gurutzatua, Herriko Batzorde baten eta beste herrialde bateko Herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen artean, adibidez.

#### **51. artikulua**

Bermeen organoak eskakizun demokratiko baten ondorio dira. Horiek dira, era berean, erakunde guztien autoritarismorako berezko joera mugatzeko tresna bakarrak. Organo kudeatzaileekiko independentzia eta Estatutu hauei nahiz ARALARren gainerako araudiei leialki men egitea dituzte funtsezko jarraibidetzat. Auzitegi bat eta gai ekonomikoak fiskalizatzeko organo bat balira bezala jokatu dute.

## 52. artikulua

1. Bermeen Batzordea kontrol demokratikoa egiteaz arduratuko den organoa da. Gainera, berak ziurtatuko du erakundearen jarduera guztiak, erakundeak afiliatuei buruz egiten dituen jarduerak, kargudun publikoenak eta ARALARko afiliatuen artekoak Estatutu hauekin eta gainerako arauekin bat datozela.
2. Bost kide ditu, eta pertsona horiek kargu hori betetzen duten bitartean eta berme batzordea bildu aurreko hilabete lehenagoko epean ezin dira bestelako barne-kargu edo kargu publikoren batean aritu eta arituak izan. Herrialdeko Batzarrek kide bana aukeratuko dute eta Biltzarrak beste bat, bosgarrena.
3. Bermeen Batzordeak, besteak beste, funtzio hauek izango ditu:
  - a. Azken erabakia hartzea salaketak eta beheragoko organoek irekitako espedienteak direla-eta beste organo batzuen aurka aurkeztutako errekursoei buruz.
  - b. Lehen eta azken erabakia hartzea funtzioen ikuspegitik baliokideak diren baina lurralde-eremu desberdinetakoak diren organoen artean sortutako gatazkei buruz.
4. Bermeen Batzordeak beti zuzenbidearen oinarriko irizpideen arabera jardungo du, alderdiei entzunez, berdintasunez jokatzuz eta Estatutu hauetan aurreikusitakoa kontuan izanez. Berme Batzordeko kidea argitu beharreko auzian parte bada, ezingo du Batzordean aritu; kasu horietan Herrialdeko Batzarrak aurreko baldintzak beteko dituen ordezkoa izendatu beharko du. Salaketa egiten den unetik eta auzia erabaki bitartean, Berme Batzordeko kideek ezingo dute dimititu.
5. Gai bat Bermeen Batzordera iritsita, honek hilabeteko epean txosten bat egingo du, gai horretaz jarduteko eskumenik ote duen argitzeko. Eskumenik ez badu, bere iritziz organo eskuduna denari bidaliko dio gaia. Eskumena badu, prozedura irekiko du eta hiru hileko epean erabakia hartuko, ebazpen arrazoitu bidez.
6. Bermeen Batzordearen ebazpenak apelaezinak dira Aralarren baitan, eta berehala betearazi beharko dituzte dagokien organo kudeatzaileek.

## 53. artikulua

1. Kontrol Ekonomikorako Batzordea ARALARko organo kudeatzaileen kontuak eta aurrekontuen betetze-maila fiskalizatzeaz arduratzen da.
2. Bost pertsonak osatzen dute. Horietatik herrialdeetako batzarrek bana aukeratzen dute eta bosgarrena Biltzar Nagusiak hautatzen du. Ardura hori duten bitartean eta kontrol ekonomikorako batzordea abian jarri aurreko hilabete lehenagoko epean ezin izango dira bestelako karguren batean aritu eta arituak izan, barnekoa zein kanpokoak izan.
3. Kontrol Ekonomikorako Batzordeak, besteak beste, funtzio hauek izango ditu:
  - a. Urtero-urtero Hego Euskal Herriko eta bere lau Herrialdeetako organo kudeatzaileen kontuak aztertu eta zaintzea.
  - b. Bi urterik behin herrietako organo kudeatzaileen kontuak fiskalizatzea.
  - c. Hego Euskal Herriko Batzarrean aurkezteko dagokion txostena prestatzea.
  - d. Dagokionean, bere lan fiskalizatzailean ari dela ikusten dituen jarduera okerren ondorioz sortutako zigor-espedientei hasiera ematea.

#### **54. artikulua**

ARALARko hautetsiek, edozein instituziotan ari direla, Legebiltzarreko taldea, batzar nagusietako taldea edo udal-taldea osatu behar dute. Behar beste hautetsi lortu ezean, talde mistoan sartuko dira edo, ahal bada, beste indar politiko batekin edo batzuekin osatuko dute taldea, hitzarmenik lortzen bada. Hitzarmen hori Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak, edo, behar izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharko du.

#### **55. artikulua**

Legebiltzarreko taldeak, batzar nagusietako taldeak eta udaletxeetako taldeak beren ekintzen erantzule izango dira ARALARko organoen aurrean –organo horiek zainduko dute haien lana–, baina batez ere Batzarren aurrean, ahalmena izango baitute hautetsiei beren karguei uko egiteko eskatzeko.

#### **56. artikulua**

Iritzi-ildotzat jotzen da ARALARren erabakietan eragina izateko batzea erabakitzen duen afiliatu-talde bat. Haren helburua da ARALARren jarduera, politika orokorra edo beste arloren bat aldatzea edo berriro interpretatzea.

#### **57. artikulua**

Edozein afiliatuk sustatu ahal izango du iritzi-ildo baten sorrera. Afiliatuen %5aren babesa lortu beharko du.

#### **58. artikulua**

Ondorio guztietarako, iritzi-ildo bat halakotzat hartua izateko, horretarako sortutako erroldan sartu beharko da. Horretarako, Zuzendaritza Batzordean agiri bat aurkeztu beharko da, honako datu hauek jasoko dituen:

- a) iritzi-ildoak bultzatzen duen pertsona edo pertsona-taldea eta bere afiliazioa,
- b) iritzi-ildoaren izena,
- c) iritzi-ildoaren helbidea (eskutitzena edo elektronikoa),
- d) iritzi-ildoaren helburuak eta motibazioa,
- e) funtzionamendurako oinarritzko arauak,
- f) iritzi-ildoak osatzen duten pertsona guztien izena eta bozeramailearen edo bozeramaileen izena,
- g) Sustatzaileak interesgarri derizkion beste datu batzuk.

#### **59. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeko Idazkaritzak iritzi-ildoen errolda kudeatu eta zainduko du. Horretarako, iritzi-ildoak behar bezala egiaztaturik egon behar dira, lehengo atalean ezarritakoaren arabera.

Iritzi-ildoen erroldan sartzeko eskatzeko erabiltzen den dokumentazioa jaso ondoren, Zuzendaritza Batzordeak aurreko artikuluan eskatutako daturen bat falta dela iritziko balio, agiria jaso eta 10 egun naturaleko epean sustatzaileengana joko du, datu hori eman dezaten. Aipatutako baldintzak beteta, iritzi-ildoari erroldan izena emango zaio.

#### **60. artikulua**

Iritzi-ildoak erroldatuta, Zuzendaritza Batzordeko Idazkaritzak ahalik eta azkarren plazaratuko ditu barne-argitalpenean edo webgunean iritzi-ildo horri buruzko datuak.

## 61. artikulua

Iritzi-ildo baten erroldatzea edo haren sorreraren berri ematea atzeratuz gero, edo iritzi-ildo bat erroldatzearen kontra egonez gero, errekurtoa aurkeztu ahal izango da Bermeen Batzordean, Estatutuen 120. artikuluan aurreikusitako eran.

## 62. artikulua

1. Gazteria, belaunaldi bateko kolektibo gisa, Iratzarri-Aralar Gazteak taldearen bidez egongo da ordezkaturia eta antolatua Aralarren baitan.
2. ARALARren afiliaturako pertsona gazteek, 30 urte azpikoek, Iratzarriko kide izateko eskubidea dute.
3. Iratzarri taldeak araudi bat izango du bere antolaketa-moldea, funtzionamendua eta egoki iritzitako gorabehera guztiak arautzeko. Bere funtzionamendu autonomoaren muga bakarra hauexa izango da: Estatutu hauek eta ARALARko organo eskudunek hartutako funtzionamendu-irizpideak eta erabakiak errespetatzea.
4. ARALARrek eta Iratzarri elkarrekiko leialtasun osoko jarrera izango dute. Lehenak ARALARri lotutako gazteen ordezkariak eta zilegitasuna Iratzarri emanaz, eta Iratzarri ARALARrekiko eta honek hartzen dituen erabakiekiko fideltasuna erakutsiko du.
5. Iratzarri taldeak erakundearen ikurrak eta ezaugarriak erabili ahal izango ditu. Gainera, organo kudeatzaileetan parte hartu ahal izango du, Estatutu hauetan adierazitako ordezkariak duela. Iratzarri taldekoa izatea bateragarria da iritzi-ildo bateko edo sektoreko talde bateko kide izatearekin, baina Iratzarri ez da horietako bakar bat ere.
6. ARALARrek, gazteekiko konpromisoari zor, Iratzarri finantziario justu eta askia izateko eskubidea aitortzen dio. Iratzarri ARALARko afiliatu gazteen kuotaren %50a jasoko du finantziarioarako, bestelako diru kopuru batzuk ere eskura baditzake ere.

## 63. artikulua

1. Iratzarri gazte talde autonomoa da, eta kanpora begirako lana Hego Euskal Herriko gateriari zuzendua dago. Bere espresio bide organo ofiziala Ekintzaile Aldizkaria da.
2. Iratzarri taldeak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena du, eta, aldi berean, eztabaidetan erabakitakoa gauzatu ahal izango du lan-taldeak osatuz eta proposamen estrategikoak garatuz.
3. Beste erakunde batzuetako gazte-mugimenduekin harremanak izango ditu, ahal bada, antzekotasunak bilatzeko eta estrategia bateratua bultzatzeko.
4. Iratzarri taldeko kidea izateko ez da beharrezkoa aralarkidea izatea, horrek gazte asko etortzea eragotziko lukeela uste baitugu. ARALARren barruan egonda, eta lehenago adierazi bezala, gazte-taldeak leialtasunez jokatu du ARALARrekin eta haren lan-ildoak sendotuko.

## VII. KAPITULUA. BARNE ORDEZKARITZA POLITIKOA

### 64. artikulua

Honako irizpide hauek dira oinarritzko arau:

1. Barneko hauteskundeak sufragio unibertsal, aske, zuzen eta isilpeko bidez egingo dira.
2. ARALARko afiliatu guztiek hautesle eta hautagai izateko eskubidea dute, estatutu hauek kontrako esaten dutenean salbu.
3. Barneko hauteskundeetan ARALARko afiliatuek bakarrik parte hartu ahal izango dute.
4. Hautaketa bat baliozkoa izan dadin, gutxienez afiliatuen %10ak hartu behar du parte.
5. Pertsona bakarreko organoak aukeratzeari dagokionez, hauteskunde-sistema gehiengoetan oinarrituko da eta bi itzuli izango ditu. Hautagaien batek boto baliodunen %50a baino gehiago lortzen badu lehenengo itzulian, hautatua izango da. Inork botoen erdia baino gehiago lortzen ez badu, boto gehien jaso duten bi hautagaiak igaroko dira hurrengo itzulira, eta bigarren itzuli horretan boto gehien lortzen duena izango da hautatua.
6. Organo kudeatzaile kolektiboak aukeratzeari dagokionez, hauteskunde-sistema irekia izango da. Zerrenda desberdinetako pertsoneri eman dakieke botoa, eta gehienez bete beharreko postuen %80ari emango zaio botoa. Aurkeztutako zerrenda guztiek bete beharreko %40tik gorako hautagai-kopurua izan beharko dute. Behin hautatu beharreko postuak betez gero, hautatu ez diren hautagaiak ordezkotako izango dira.
7. Bermeen organoak hautatzeko, hauteskunde-sistema gehiengoetan oinarrituko da eta bi itzuli izango ditu. Bereizgarri bat badu: herrialde bakoitzak Bermeen Batzordeko eta Kontrol Ekonomikorako Batzordeko kide bana aukeratu du eta Biltzar Nagusiak bosgarrena.
8. Hegoaldeko Zuzendaritzak hauteskunde-egutegia zehazteaz batera hasiko dira hauteskunde-prozedurak. Organo hori izango da hautes-batzordea, eta berezko dituen eskumenak izango ditu.
9. Hautes Batzordeak hartutako erabakien kontra, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da goragoko organoaren aurrean eta, hala badagokio, gero, Bermeen Batzordearen aurrean. Hori egiteko epeak Estatutu hauetan adierazita daude eta edozein errekurtsio aurkezteko berberak dira.
10. Barneko hauteskunde-prozesu guztietan, hautagaiaren izenaren ondoren zein iritzi-ildotan dagoen adierazi beharko da, iritzi-ildoren batean badago.
11. Normalean barneko kargudunak hiru urterik behin berrituko dira, baina ohiz bestera ere badago berritzea, organoko kideen %40ak edo gehiagok uko egiten badio bere karguari aldeberean.
12. Edozein aukeraketa-prozesutan bi edo hautagai gehiagoren artean boto-berdinketarik egongo balitz, hautagai euskaldunak izango luke lehentasuna, eta irizpide hau aplikatuta berdinketak jarraituko balu, emakumezkoak izango luke lehentasuna eta, hala ere, berdintasunak jarraituko balu, afiliazio-datarik zaharrena duenak. Baina aukeratutakoen artean emakumeen kopurua ez bada %40ra iristen, emakume izateari emanen zaio lehentasuna.

13. Ahal den neurrian ARALARrek genero mailan parekotasuna lortzera joko du, batetik, eta lehen postuak betetzen dituztenak euskaldunak izatera, bestetik. Horretarako, zuzendaritzak edo ildoek aurkeztutako zerrenda plantxek genero bakoitzeko kideen kopurua, gutxienez, %40koa izatea bermatuko du.

#### **65. artikulua**

Dedikazio osoko edo partzialeko barneko karguak dituztenek ordainsari bat jasotzeko eskubidea izango dute Alderdiarentzako egindako lanarengatik. Ordainsari horren kopurua organo eskudunek ezarriko dute. Barneko gainerako karguetan aritzeagatik ez da ordainsaririk jasoko. Hala ere, erakundearen egoera ekonomikoak bidea ematen badu, neurriak hartuko dira barneko beste arduradun batzuek desplazamenduengatik edo bidai sariengatik izandako gastuak ordaintzeko; organo eskudunek zehaztuko dute horien zenbatekoa.

#### **66. artikulua**

Ezin da barneko kargu batean baino gehiagotan aritu, salbu eta, noski, bi kargutan batera aritze hori Estatutu hauetan aurreikusitakoak eragiten badu.

#### **67. artikulua**

1. ARALARrek jendea kontratatuko du administrazio edo propaganda lanak eta lan teknikoak egiteko. Inor kontratatzeko orduan, aralarkide edo aralarzaleei lehentasuna emango zaie, baldin eta beti ere behar den prestakuntza badute. Afiliatuen datuen eta barneko agirien pribatutasuna bermatzeko, administrazio lanak ez dira inoiz alderdikideak ez diren pertsonen eskuetan utziko.
2. Pertsona horiek hautatzeko orduan, publizitate, merezimendu eta gaitasun irizpideak bermatuko dira egiten den hautaketa-prozesuan.
3. Beren funtzioak egiteko orduan lan-baldintza eta soldata duinak izango dituzte eta beti ere indarrean dagoen laneko arautegiak babestuko ditu.

### **VIII. KAPITULUA. INSTITUZIO ORDEZKARITZA**

#### **68. artikulua**

Hauteskundeetara aurkezteko zerrendak egiteko orduan, ARALARrek hiru arlo hartuko ditu kontuan:

1. Afiliatuek eskubidea dutela beren hautagaitza aurkezteko kargu publikoak betetzeko eta kargu publikoon hautaketa-prozesuan parte hartzeko.
2. ARALARrek pertsona ezagun independenteak edo ARALARren afiliatuta ez daudenak hartu nahi dituela bere zerrendetan.
3. ARALARrek nahi duela aralarzaleek ere hautagaiak aukeratzeko parte hartzea.

#### **69. artikulua**

ARALARrek prozedura hau erabiliko du Eusko Legebiltzarrerako, Nafarroako Parlamenturako eta herrialdeetako hiriburu- eta udaletarako eta Espainiako Parlamenturako eta Kongresurako hauteskunde-zerrendak osatzeko orduan:

1. Nafarroako Parlamenturako, Eusko Legebiltzarrerako, hiriburuetako zein Espainiako Parlamenturako eta Kongresurako hautagaiak herrialde bakoitzeko afiliatuek aukeratuko dituzte.
2. Lehenik, beren hautagaitza aurkeztu duten ARALARko afiliatuen artetik zerrenda-burua hautatuko da. Hautaketa afiliatuek egingo dute, koordinatzaile nagusia hautatzeko erabilitako prozedura berari jarraiki.
3. Bigarrenik, ARALARko afiliatuek hautatuko dituzte zerrendako gainerako postuetan egon behar diren pertsonak, independenteak barne direlarik. Zuzendaritza Batzordea hautatzeko sistema bera erabiliko da hautaketa egiteko.

#### **70. artikulua**

Batzar Nagusietako hauteskunde-zerrendak prestatzeko, ARALARrek prozedura hau erabiliko du:

1. Lehenik, beren hautagaitza aurkeztu duten ARALARko afiliatuen artetik zerrenda-burua hautatuko da. Hautaketa barruti bakoitzeko afiliatuek egingo dute, koordinatzaile nagusia hautatzeko erabilitako prozedura berari jarraiki.
2. Bigarrenik, ARALARko afiliatuek hautatuko dituzte zerrendako gainerako postuetan egon behar diren pertsonak, independenteak barne direlarik. Zuzendaritza Batzordea hautatzeko sistema bera erabiliko da hautaketa egiteko.

#### **72. Artikulua**

Europako Parlamenturako hauteskunde-zerrendak prestatzeko, ARALARrek prozedura hau erabiliko du:

1. Lehenik, beren hautagaitza aurkeztu duten ARALARko afiliatuen artetik zerrenda-burua hautatuko da. Hautaketa afiliatuek egingo dute, koordinatzaile nagusia hautatzeko erabilitako prozedura berari jarraiki. Hautaketa-prozesuan, afiliatuen erroldetan izena emandako pertsonak hartuko dute parte.
2. Bigarrenik, ARALARko afiliatuek hautatuko dituzte zerrendako gainerako postuetan egon behar diren pertsonak, independenteak barne direlarik. Zuzendaritza Batzordea hautatzeko sistema bera erabiliko da hautaketa egiteko.

#### **73. artikulua**

Udal eta Foru hauteskundeetarako zerrendetan errespetatzen ez badira arautegi honetan ezarritako irizpideak, eta kasu horretan bakar-bakarrik, Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak izango du zerrenda aldatzeko ahalmena. Gainerako hauteskundeetarako irizpide hausteetan Hegoaldeko Zuzendaritzak izango du ahalmen hori.

#### **74. artikulua**

Hauteskunde-koalizioak osatzeko zein hauteskunde osteko itunak egiteko prozedura honi jarraitu beharko zaio:

1. Hegoaldeko zuzendaritza batzordeak proposamen zehatza –eta ez derrigorrean bakarra- eginen du koalizio guztien gainean (salbu hiriburuak ez diren udalerrietarako), eta Biltzar Nagusiaren Batzordearen oniritzia beharko du.
2. Hauteskunde osteko itun orok Hegoaldeko Zuzendaritza Batzordearen oniritzia behar du.

3. Udalerri mailako koalizioek (hiriburuak izan ezik) edota hauteskunde osteko itunek herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen eta Herri Batzarraren oniritzia behar dute. Koalizioak herrialde bat baino gehiagokoak badira, Herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen oniritziaz gain Hegoaldeko Zuzendaritzaren oniritzia ere beharko du.
4. Herrialde bakar bati dagozkion koalizioek eta itunek herrialdeko Zuzendaritza Batzordearen eta Herrialdeko Batzarraren oniritzia beharko dute.
5. Koalizioan joanez gero, ARALARri dagozkion postuak hautatzeko, Zuzendaritza Batzordea hautatzeko sistema bera erabiliko da. Aralarri dagokion lehen postua, berriz, Koordinatzaile Nagusia hautatzeko erabilitako prozedurari jarraiki aukeratuko da.

#### **75. artikulua**

ARALAR bere zerrendekin aurkezten ez bada hauteskundeetara, bere afiliatuak hautagai-zerrenda independenteetan aurkeztu ahal izango dira, baldin eta nolabait bat badatoz hautagai-zerrenda horren hauteskunde-programa eta ARALARren irizpide ideologikoak.

### ***IX. KAPITULUA. KARGUDUN PUBLIKOAREN ESTATUTUA***

#### **76. artikulua**

Honako pertsona hauek jotzen dira ARALARko kargudun publikotzat:

1. Sufragio unibertsal bidez hautatutako guztiak, hala nola, diputatuak, senatariak, legebiltzarkideak, batzar nagusietako kideak eta zinegotziak.
2. Euskal instituzioetako gobernu-kontseiluetan ari diren guztiak.
3. ARALARrek hautaturik, administrazio-kontseiluetan, patronatuetan, enpresa publiko edo mistoetan ari diren guztiak.
4. ARALARren proposamenez edo ekimenez, Administrazioako izendapen askeko goi-karguak betetzen dituztenak.
5. ARALARren proposamenez edo ekimenez, Administrazioako goi-karguetan zerbitzuak egiten ari diren funtzionarioak.

#### **77. artikulua**

ARALARko kargudun publikoek, besteak beste, funtzio hauek dituzte:

1. Dauden instituzioetan ARALARren ordezkari izatea.
2. ARALARko boto-emaeleek emandako hauteskunde-agindua betetzeko behar diren lanak egitea, aurkeztutako hauteskunde-programa eta ARALARren oinarri ideologikoen arabera.
3. Berez ekimena, irudimena eta sormena izatea eta jasotako agindua garatzeko proposamenak egitea.
4. Hautesle, erakunde eta gizarte-mugimenduekin harreman ona izatea, herritarren parte-hartzea dauden instituzioan sustatuz.

#### **78. artikulua**

ARALARko kargudun publikoek, besteak beste, eskubide hauek dituzte:

1. ARALARren giza laguntza eta laguntza tekniko eta materiala izatea, bere lana egiteko.
2. Laguntza juridikoa izatea bere karguan aritzearen ondorioz sortutako auziren batean bere burua defendatzeko.
3. Bere karguan aritzeagatik ordainsariren bat edo kalte-ordainen bat jasotzea.
4. ARALARko organo kudeatzaileei proposamen politikoak egitea.

#### **79. artikulua**

ARALARko kargudun politikoek beren bizitza pribatuan zein publikoan ARALARren idearioarekin bat datorren kode etiko baten arabera jokatu beharko dute.

ARALARko kargudun publikoek beren ondasunen aitorten publikoa egingo dute karguan hasi aurretik eta bukatu ondoren.

#### **80. artikulua**

ARALARko kargudun publikoek betebeharrak hauek dituzte:

1. ARALARrekin eta aurkeztu duten programa politikoarekin zintzotasun politiko eta leialtasunez jokatzeko.
2. Instituzio-taldeak eta ARALARrek agintzen dizkieten lanak arduraz eta arretaz betetzea.
3. Alderdiaren gainerako egiturekin elkarlanean jardutea, beren karguetan ari direla eskuratzen dituzten informazio garrantzitsu guztiak jakinaraziz.
4. Herritar guztiei eta bereziki organismo eta mugimendu guztiei gai interesgarri guztiak aditzera ematea, herritarren parte-hartzea ahalik eta gehien sustatuz.
5. Beren ordainsarien zati bat, aurrez adostutakoa, ARALARren diru-kutxetan sartzea.
6. Balantze bat egin eta aurkeztea dagokion Batzarrak onetsi dezan.
7. Bere kargua ARALARko organo eskudunaren eskura izatea.

#### **81. artikulua**

Beren karguan ari direla, boto-askatasuna erabiliz, beren kontzientziaren arabera bozkatu ahal izango dute gai moral edo etikoetan, erakundeak horien inguruan iritzirik azaldu ez duenean eta boto-askatasuna baliatzea gomendatzen duenean.

#### **82. artikulua**

ARALARko kargudun publikoek, oro har, beren alderdiak aholkatutako boto-jouerari men egin beharko diote. Ez da inolako salbuespenik egongo ondoko kasuetan:

1. Lehendakariak, alkateak eta oro har kargudun guztiak hautatu behar direnean, baita gaitzespen eta konfiantza mozioak aurkeztu direnean ere.
2. Beste alderdi politikoren batekin itun edo akordioaren bat hitzartu denean.
3. Erakundearen helburuei edo haren oinarri ideologikoei estuki loturiko gairen bat denean.
4. Gizarte-mugimenduekin edo oihartzun sozial handiko mugimenduekin hitzartutako gairen bat denean.

5. Erakundearen aurrekontua onetsi behar denean.

### **83. artikulua**

1. 82.1. artikuluan aurreikusitako kasuan boto-kontsigna betetzen ez duena eta diru funtsa publiko zein pribatuen erabilera txarra egiten duena legebiltzar, batzar nagusi edo udaltaldetik egotzia izango da eta karguari uko egin beharko dio.
2. 82. artikuluan aurreikusitako beste kasuetan, diziplina-espeditentea irekiko da. Kasu hori errepikatzen dela edo gaiztakeriaz jokatu dela ikusiz gero, erruduna kaleratua izango da. Ildo horretatik, kasu hori errepikatzen dela uste izateko boto-kontsigna hiru aldiz edo gehiagotan urratu beharko da 82.2, 82.3, 82.4 eta 82.5 artikuluetan aipatutako gaietan.

### **84. artikulua**

ARALARko zerrendetan independente gisa aurkeztutako kargudun publikoen arloan, derrigorrezko kontsigna 82 artikuluan aipatutako kasuei dagokie; gainerako gaietan, berriz, boto-askatasuna izango dute.

### **85. artikulua**

Honako bateraezintasun orokor hauek ezarri dira:

1. Ezin izango da kargu publiko bat baino gehiago bete, salbu eta, noski, bata bestearen ondorio ez bada. Hegoaldeko Zuzendaritzak salbuespenak ezarri ahal izango ditu udal kargudunek bestelako kargu publikoren bat ere eduki dezaten.
2. Ezin izango da kargu publiko batean jardun eta aldi berean jarduera pribatu profesioaletan eta ekonomikoetan aritu, baldin eta jarduera horiek onura jaso badezakete kargu publikoaren bidez eskuratutako informazioari esker.

### **86. artikulua**

1. Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko, Espainiako Parlamentuko eta Europako Parlamentuko hautetsiek dedikazio osoa izango dute, Zuzendaritza Batzordeak interesatuaren eskariz kontrakoa erabakitzen ez badu.
2. Gainerako kargudun publikoek euren jardueraren arabera dedikazioa izango dute. Nolanahi ere, dedikazio hori organo eragile eskudunak ebatziko du.
3. Kargudun publikodunek zuzenean ARALARko diru-kutxetan sartu beharko dituzte bidaiengatik, laguntzagatik eta gisa horretako arrazoiengatik jasotako ordainsariak.
4. Dedikazio osokoak ez diren kargudun publikoek beren dedikazioaren arabera ordainsaria jasoko dute. Kopuru hori organo eragile eskudunak finkatuko du.
5. ARALARrek ahaleginak egingo ditu, bere muga ekonomikoen barruan, kargudun publiko batek ere karguari uko egin beharrik izan ez dezan arrazoi ekonomikoak direla eta.
6. Nolanahi ere, hautetsiek eskubidea dute jasotako ordainsari guztien %20a gutxienez eskuratzeko.
7. Hautetsiek, erakundearen hobe beharrez, uko egin diezaiekete araudian aurreikusitako ordainsariei.

#### **87. artikulua**

1. Hautatu gabeko kargudun publikoek ARALARri eskuratu beharko diote beren kargua dela-eta jasoko dituzten ordainsarien zati bat.
2. Kopuru hori kargu publikoaren eta erakundearen artean hitzartuko da eta ez da %10a baino txikiagoa izango, ezta %33a baino handiagoa ere.
3. ARALARri emandako kopurua dela eta, kargudun publikoek lehen irabazten zutena baino gutxiago ez irabazteko ahalegina egingen du ARALARrek.
4. Kargudun publikoek nahi izanez gero, araudian ezarritako kopurua baino gehiago eman diezaiokete erakundeari.

#### **88. artikulua**

ARALARko zerrendetan independente gisa hautatutako kargudun publikoek ARALARko afiliatu diren kargudun publikoen erregimen ekonomiko bera izango dute.

#### **89. artikulua**

Instituzioetako taldeei ematen zaizkien ordainsariak osorik sartuko dira ARALARren diru-kutxetan eta kopuru horiek ez dira erabiliko kargudun publikoei ordaintzeko.

### **X. KAPITULUA. EKONOMI ETA FINANTZA KUDEAKETA**

#### **90. artikulua**

ARALARren iritziz, jardun politikoaren finantzabide nagusia finantzabide publikoa izan behar da, jardun politikoa goresgarria delakoan eta instituzioen aldetik behar besteko babesia jaso behar duelakoan. Gainera, ARALARrek uste du zentzuzko finantzaketa publiko demokratikoak pluraltasuna, alderdi politikoaren aukera-berdintasuna eta botere ekonomikoekiko independentzia bultzatzen dituela.

#### **91. artikulua**

ARALARrek barneko kudeaketa ekonomikoa ahalik eta gardenen izatearen alde egiten du, are gehiago kontuan hartzen badugu alderdi politikoaren finantzabide nagusia finantzabide publikoa dela. Ildo horretatik, ARALARrek ahaleginak egingo ditu bere diru sarrera eta irteera guztiak kontabilizatzeko, kontularitza garbia eta tolesgabea izateko eta informazio hori guztia afiliatu guztiei eskuratzen laguntzeko.

Bi urterik behin eta Biltzar Nagusiarekin batera, barneko kontuen auditoria egingo da, Biltzar Nagusiak onesteko aurkeztuko dena. Nolanahi ere, kanpoko kontuen auditoriak egingo dira, dagokion eremuko afiliatuen %30ak edo gehiagok hala eskatzen badu.

#### **92. artikulua**

Austeritatea eta baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra ARALARren administrazio ekonomikoaren gakoetako batzuk izan behar dira. Ildo horretatik, ARALARrek bultzatuko ditu ohiko dirutza xahutzea ekarriko ez duten hauteskunde kanpainak. Izan ere, hauteskunde-gastuen kontrol zorrotzaren alde egingo du, baita hedabide publikoetan bere berri doan, duintasunez eta gainerako alderdi politikoek bezala zabaltzearen alde ere. Halaber, lege-neurriak hartzearen alde dago, hedabide pribatuetan pluraltasuna bermatzeko.

### **93. artikulua**

Kudeaketa eraginkorra bermatzeko, ARALARrek kontularitzako batasuna ezarriko du erakunde osorako. Ildo horretatik, ARALARrek kontularitzako plan bakar bat jarriko du indarrean. Horrek ez du esan nahi, ordea, lurralde edo organo bakoitzak finantza autonomia izango ez duenik. Finantza ahalmena eta autonomia duten lurralde eta organoek urteko aurrekontua prestatuko dute, Zuzendaritza Batzordera bidali beharko dena, kontularitza-planean txertatzeko.

### **94. artikulua**

Herrialdeen eta ARALARko organoen arteko elkartasuna oinarritzko irizpide ekonomikoetako bat da. Horrek esan nahi du lurralde eta organo baten gabeziak beste baten funts ekonomikoekin beteko direla.

### **95. artikulua**

Hauek izango dira ARALARren diru-iturriak:

1. Diru-laguntza publikoak.
2. Kargudun publikoek eta instituzioetako kargudunek egindako ekarpenak.
3. Aralarkideen eta aralarzaleen kuotak.
4. Norbanakoen dohaintzak eta ekarpenak.
5. Erakundearen gai politikoen eta sinbolikoen salmenta, baita txosnak, zozketak eta abar antolatuz eskura daitekeen dirua ere.
6. Finantzako baliabideak.
7. Legezko beste finantzabide batzuk

### **96. artikulua**

ARALARren baliabide ekonomikoak honako helburu hauetarako erabiliko dira:

1. ARALARren eta haren ordezkarien jardun politikoa finantzatzeko, baita barneko argitalpena eta erakundeak sortzen duen gainerako material politikoa ordaintzeko ere.
2. Kargudun publikoen, barneko arduradunen eta ARALARrek bere jardun politikoa aritzeko kontratatutako langileen soldatak ordaintzeko.
3. ARALARrek parte hartzen duen hauteskunde-kanpainak finantzatzeko.
4. Alokairuak ordaintzeko, erakundeak erabiltzeko lokalak ordaintzeko, ohiko gastuak finantzatzeko eta abar.
5. Nazioarteko elkartasuna sustatzeko eta garapenerako laguntza emateko.
6. Beste gastu batzuetarako.

### **97. artikulua**

Diru-laguntza publikoetatik datozen baliabideak nola banatuko diren zehazteko, Hegoaldeko Zuzendaritzak proposamen zehatza prestatuko du 2008ko ekainaren 30a baino lehen, Hegoaldeko Asanbladak onartu dezan.

### **98. artikulua**

Finantza-etxeren bati kreditua eskatzea erabakitzea Zuzendaritza Batzordearen esku dago.

#### **99. artikulua**

Ondasun higiezinak erostea Zuzendaritza Batzordeak erabaki dezake.

#### **100. artikulua**

Organo batek hartutako zorren erantzulea organo hori bera izango da. Horrek ez du esan nahi, ordea, alderdiak, elkartasun-irizpideari jarraiki, ezin dituenik bere gain hartu, zor horiek eragin dituen arrazoia arrazoizkoa bada.

#### **101. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak elkartasun-funts bat eratuko du erakundearen barruan gerta daitezkeen finantza-desorekak berdintzeko. Era berean, hauteskunde-kanpainen gastuei aurre egiteko konpromisoa hartzen du, organo bakoitzak eman behar duen zenbatekoa eta hauteskunde-gastuen banaketa hitzartuz.

### ***XI. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA***

#### **102. artikulua**

1. Diziplinako erantzukizunari aurre egin beharko diote kapitulu honetan aipatutako hutsegiteak egiten dituzten ARALARko afiliatuek.
2. Zigorak ezarri ahal izateko, lehenengo, diziplinako espedientea ireki beharko da.
3. 126. artikuluan aipatutako hutsegiteengatik bakarrik ireki ahal izango da diziplinako espedientea, salbu eta boto-diziplina urratzen bada.
4. 127. artikuluan jasotako zigorak bakarrik ezarri ahal izango dira eta soilik bertan bildutako arrazoiengatik, salbu eta boto-diziplina urratzen bada.

#### **103. artikulua**

Salaketa bat tartean bada edo organo eragileren baten erabakiz ireki ahal izango zaio ARALARko afiliatu bati diziplinako espedientea.

#### **104. artikulua**

ARALARko afiliatu baten kontrako diziplina-espediente bat salaketa bidez ireki ahal izateko, salaketak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

1. ARALARko afiliatu batek aurkeztu beharko du salaketa-espediente hori.
2. Inputatuak egin omen duen kapitulu honetan aipatutako hutsegiteetako bati buruzkoa izan behar da.
3. Ongi arrazoiturik egon behar da (salaketa aurkeztea justifikatzen duten behar beste aztarna edo froga aurkeztuz).
4. Salatuaren Herrialdeko Zuzendaritzaren aurrean aurkeztu beharko da, antolaketa arduradunaren eskutik.
5. Idatzitakoa izan behar da eta honako puntu hauek jaso beharko ditu:
  - a. salatuaren izena;
  - b. egin omen duen hutsegitea edo hutsegiteak;
  - c. salaketak oinarritzat dituen aztarnak edo frogak;
  - d. salatzailearen izena;
  - e. salatzailea erroldatuta dagoen herria.
6. Salaketa jasotzen duen Herriko Batzordearen Idazkaritzak aztertuko du artikulua honetan aipatutako formazko baldintza guztiak betetzen ote dituen ikusteko, baldintza horiei buruzko iritzirik eman gabe.

7. Salaketaren kopia emango zaio salatzaileari, seilu eta guzti.

#### **105. artikulua**

Edozein organo eragilek erabaki dezake ARALARko afiliatu bati diziplinako espedientea irekitzea, honako irizpideak kontuan hartuta:

1. Organo eragilea inputatua erroldatuta dagoen barrutikoa izan behar da.
2. Erabakiari eusteko behar beste froga edo aztarna egon behar da.
3. Espedientea irekitzea erabaki duen organo eragilearen herrialdeko zuzendaritzak dagokion bilkuraren aktan emango du horren berri, 104. artikulua 5. puntuan adierazitako lehenengo hiru baldintzak aipatuta.

#### **106. artikulua**

1. Salaketaren kasuan, Herrialdeko Zuzendaritzak salaketa aurkezten den egunetik 15 egun naturaleko epean erabakiko du erakutsitako frogak eta aztarnak nahikoa ote diren espedientea irekitzeko.
2. Espedientea ez irekitzea erabakiz gero, ebazpen hori salatzaileari jakinaraziko zaio. Salatuari eta Bermeen Batzordeari, berriz, prozesuan sortutako agiri guztiak bidaliko zaizkio.
3. Espedientea irekitzea erabakiz gero, egin omen duen hutsegitea eta hutsegite-mota zehaztuko dira, baita zigorra proposatu ere. Hori dena bilkuraren aktan jasoko da.

#### **107. artikulua**

Espedientea herrialdeko zuzendaritzak izendatutako organo eragileak izapidetuko du, gutxienez 3 lagunez osatua egongo dena: lehendakaria, idazkaria eta bokala.

#### **108. artikulua**

Espedientearen tramitazioak prozedura hau jarraituko du:

1. Diziplina-espedientea irekitzea erabakiz gero, organo eragilearen idazkaritzak interesatuari bidaliko dio prozesuan sortutako dokumentazio guztia. Salatuak 10 egun naturaleko epea izango du instrukzioa errefusatzeko, 109. artikuluan dioenaren arabera. Adierazitako denbora igarota, instrukzioak salatuari hitzordua emango dio egozten zaizkion egintzei buruzko adierazpena egiteko.
2. Instrukzioa errefusatu bada, 109. artikulua aplikatuko da. Hala ez bada, eta adierazpena egin eta gero, instrukzioak aginduko du egintzak zehaztu eta argitzeko behar beste eginbide egiteko.
3. Adierazpena egin eta gehienez 15 eguneko epean, instrukzioak kargu-orria bidaliko dio salatuari. Orri horretan argi eta garbi adierazi behar da zer egozten zaion, zer hutsegite egin omen duen eta zer zigor proposatzen den. Espedientearen idazkaritzan behar beste alegazio aurkezteko 10 egun natural izango ditu.
4. Epe hori bukatuta eta hurrengo 10 egunen buruan, instrukzioak erabakiko du aurkeztutako alegazioak onetsi ala ez, edo froga gehiagorik aurkezteko eskatu behar duen ala ez. Horren guztiaren berri emateko, ebazpen idatzia bidaliko zaio salaketa jaso duenari. Ondoren, 10 egun naturaleko epe berri bat hasiko da, alegazioak onetsi ez badira, errekurtsioa aurkez dezan, edo eskatutakoa eman dezan.
5. Prozesuak dirauen bitartean, salatuak instrukzioari eskatu ahal izango dio espedientea ikusteko, eta instrukzioak onetsi egin beharko du eskaera, eta dokumentazioa eskuratzeko epe bat emango du, gehienez 3 egun naturalekoa.
6. 4. atalean aipatutako epea bukatu eta gehienez 10 egun naturaleko epean, instrukzioak ebatziko du espedientea, alegazioak onesteko aurkeztutako errekurtsioari erantzunez eta honako hau jakinaraziz:

- a. diziplinako erantzukizunik dagoen ala ez;
  - b. egindako hutsegitea espedientearen irekitzeko onespenean aipatutako bera edo besteren bat ote den (kasu honetan, adierazi beharko da zer hutsegite den eta zer motatakoa den hutsegitea);
  - c. ezarritako zigorra hasieran proposatutakoa edo besteren bat ote den (adierazi zein den);
  - d. espedientearen ebazteko zein bide dauden.
7. Espedientearen ebazteko, instrukzioak horren kopia bidaliko dio Bermeen Batzordeari eta herrialdeko zuzendaritzari.

#### 109. artikulua

1. Salatuak jakinez gero haren kontra diziplinako espedientearen ireki behar dela, espedientearen izapidetu behar duena errefusatu ahal izango du, 107.1 artikuluan adierazitako epean.
2. Errefusatzea arrazoitua izan behar da. Espedientearen idazkaritzan aurkeztu beharko da, bertan erroldako kopia bat emango diotelarik. Prozesu batean gehienez bi aldiz errefusatu ahal izango da. Errefusatzeak berehala izango du indarra, errefusatutako pertsona ordezkaturik izango da eta haren ordezkaria Herrialdeko Zuzendaritzak izendatuko du.
3. Errefusatzea aurkeztuta, prozesuak 108.1 artikuluan aipatutako unera egingo du atzera.

#### 110. artikulua

Diziplinako hutsegiteak arinak eta larriak izan daitezke.

1. Honako hauek dira hutsegite arinak:
  - a. Bi kuota jarraian ez ordaintzea arrazoirik eman gabe.
  - b. Isilpean ez gordetzea edo kontuz ez ibiltzea, horren beharra egonez gero ere, kalte handirik eragin ez badio ARALARren jardunari.
  - c. Bera kide duten organoen bileretara ez joatea, arrazoirik eman gabe, eta organo horretako kideek hala adierazita.
  - d. ARALARko afiliatuak ez errespetatzea.
  - e. Iritziak publikoki ematea, baldin eta ARALARren irudiari kalte eragin badiote edo ARALARren jardunari kalte arina eragin badiote.
2. Honako hauek dira hutsegite larriak:
  - a. Bi hutsegite arin urtebetean egitea edo hiru hutsegite bi urtez jarraian.
  - b. Isilpean ez gordetzea edo kontuz ez ibiltzea, horren beharra egonez gero ere, kalte handia eragin badio ARALARren jardunari.
  - c. ARALARko afiliatuak oso modu larrian ez errespetatzea.
  - d. Iritziak publikoki ematea, baldin eta ARALARren irudiari kalte handia eragin badiote edo ARALARren jardunari kalte handia eragin badiote.
  - e. Kargua dela-eta eskuratzetik izanda, zaindu beharreko agiriarekin zabarkeriaz edo zitalkeriaz jokatzeko.
  - f. ARALARren ondasunak bidegabe erabiltzea edo haien jabe egitea.

#### 113. artikulua

Hutsegite arinek hiru hilabeteren buruan preskribatuko dute, hutsegiteok gertatzen direnetik; hutsegite larriek, berriz, urtebete igarota.

#### 114. artikulua

Atal honetan adierazitako edozein epe bukatuta iraungiko da espedientearen instrukzioa atal honetan adierazi bezala egin gabe.

#### **115. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea da ezarritako zigor bat indultatzeko eskumena duen organoa.

Indultua emateko proposamena edozein afiliatuk edo edozein organok egin dezake, baita hutsegitea egin duenak ere.

#### **116. artikulua**

1. Bermeen Batzordeak zigor-errolda bat kudeatu eta zainduko du, errolda horretan bilduko dira zigorra jaso duten afiliatuen kasuak.
2. Diziplina-prozesuan sortu den dokumentazio guztia zainduko da. Dokumentazio hori zigortuak eskueran izango du, eta horren kopia nahi duenean eskatu ahal izango du.
3. Orobat, dokumentazio hori eskuratu ahal izango da, pertsona berari beste diziplina-espeditente bat irekitzen bazaio.
4. Bi kasuetan, Bermeen Batzordeak eman beharko du eskatutako dokumentazioa.

#### **117. artikulua**

1. ARALARko organoek egindako edo egin gabe utzitako jarduerak direla-eta edozein afiliatuk edo organok errekurtsioa aurkeztu ahal izango du Bermeen Batzordean.
2. Errekurtsioa idatziz egingo da 30 eguneko epean, errekurritutako jarduera horiek gertatzen diren egunetik kontatzen hasita.

### ***XII. KAPITULUA. ESTATUTU HAUEK ALDATZEA***

#### **118. artikulua**

Estatutu hauek aldatzeko proposamena, Biltzar Nagusian eztabaidatu beharrekoa, honako hauek aurkeztu beharko dute:

1. Zuzendaritza Batzordeak.
2. Bermeen Batzordeak.
3. ARALARko afiliatuen %10ak.
4. Afiliatuen %5etik gorako kide-kopurua duten iritzi-ildoek.
5. Hego Euskal Herriko Batzarrak.

#### **119. artikulua**

Aldatzeko proposamena pertsona bakar batek egiten badu, Biltzar Nagusia egin aurretik, Hego Euskal Herriko Batzarrean eztabaidatuko da eta hara bildutakoen %33aren babesa lortzen badu, Biltzar Nagusira eramango da, Hego Euskal Herriko Batzarraren proposamen gisa.

#### **120. artikulua**

Biltzar Nagusiak bakarrik du ahalmena ARALARren Estatutu hauek aldatzeko.

#### **121. artikulua**

Estatutu hauei aldaketa bat egitea onesteko, erabateko gehiengoa beharko da, alegia, emandako botoen %50a baino gehiago.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa**

Hegoaldeko Zuzendaritzak talde bat izendatuko du Lurraldearteko antolakuntzarako araudia prestatu eta onesteko, 2008.eko abenduaren 31 aurretik.

### **Bigarrena**

1. 2008.eko abenduaren 31 aurretik, honako organo hauek prestatu beharko dute beren barne araudia:
  - a. Hego Euskal Herriko Batzarra.
  - b. Zuzendaritza Batzordea.
  - c. Herrialdeko Batzarra.
  - d. Herrialdeko Zuzendaritza Batzordea.
  - e. Herriko Batzarra edo eskualdekoa.
  - f. Bermeen Batzordea.
  - g. Ekonomi Batzordea.
  - h. Legebiltzar eta udal-taldeak.
  - i. Iratzarri.
  - j. Komite politikoa.
2. Egun horretatik aurrera eratzen diren organoek eratu egunetik hasita hiru hilabeteko epean egin beharko dute.

### **Hirugarrena**

Hegoaldeko zuzendaritza batzordeak kongresurako prozedurak zehaztuko dituen araudi bat proposatuko du hurrengo kongresuaren hasieran onartzeko.

### **Laugarrena**

Garapen-araudia prestatu bitartean, salbuespenez Zuzendaritza Batzordeari ematen zaio dauden hutsuneak betetzeko eta araudirik ezak eragin ditzaketen kontraesanak ebazteko ahalmena.

## **AZKEN XEDAPENA**

Estatutu hauek Biltzar Nagusiak onartutakoan sartuko dira indarrean.